



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilak 22

Vitoria-Gasteiz, 22 de enero de 2019

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

GOBERNUAK AUTONOMIA MAILAKO ARAUDIA PRESTATZEKO PROZEDURA ARINDU, SINPLIFIKATU ETA MODERNIZATU DU

- **“Xedapen Orokorrek Prestatzeko Prozedurari buruzko Lege Proiektua” onetsi da; horren bidez, desburokratizatu egiten da eta murriztu prozesua, eta “Gobernamendu Ona”ren derrigorrezko eskakizun berriak jaso ditu: plangintza, ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren partaidetza**
- **Lege berriak jauzi kualitatiboa ematen du Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren alde egiten duen lanean; izan ere, arau berriak genero-berdintasunetik aztertzen eta zuzentzen dituzten txostenak aurreratzen eta lehenesten ditu**

Gobernu Kontseiluak, gaur, “Xedapen Orokorrek Prestatzeko Prozedurari buruzko Lege Proiektua” onetsi du; testu berriak Eusko Jaurlaritzak bere lege eta dekretuak prestatzeko bete behar dituen fase eta eskakizun guztiak definitzen, mugatzen eta arautzen ditu. Lege berri horren bidez, aurrekoa indargabetzen da, 2003koa, eta helburu hirukoitza du:

- ✓ Desburokratizazioa: arauak prestatzeko izapideak eta prozedurak laburtu, sinplifikatu eta arintzen ditu eta, horretarako, lege eta dekretuen kalitateari eta erabateko bermeei eusten zaie.
- ✓ Berdintasuna: arauak prestatzeko prozesuan, genero-ikuspegia aztertzen duten eta berdintasuna bermatzeko neurri zuzentzaileak aplikatzen dituzten txosten guztiak aurreratzen eta lehenesten ditu, baita Eusko Jaurlaritzak prestatzen dituen araudi-testuetan ere.
- ✓ Modernizazioa: arauak prestatzeko prozeduran “Gobernamendu Ona”ren eskakizun berriak eta beharrezkoak sartzen ditu, besteak beste, lege eta dekretuak prestatzeko prozedura osoan plangintza, ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren partaidetza derrigorrezko gisa ezartzea.

Lege-proiektu honek zioen azalpena, hogeita zortzi kapitulu bi kapitulutan multzokatuta, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen ditu. Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrera bidaliko du aste honetan bertan; bertan, Josu Erkoreka Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuak hitz egingo du, Legebiltzarreko taldeei xehetasunak emateko.

DESBUROKRATIZAZIOA

Lege-proiektuaren helburu nagusietako bat lege eta dekretuak prestatzeko prozedura desburokratizatzea, sinplifikatzea eta murriztea da. Horretarako, lau fase ezartzen dira, epe tasatuekin eta horietako bakoitzeko derrigorrezko prozeduren xehetasunarekin:

- ✓ Prestatze-lana: aurretiko fasea da; bertan, Eusko Jaurlaritzak prestatuko dituen arau berrien beharra, proportzionaltasuna eta eraginkortasuna planifikatu eta justifikatu behar ditu. (6. artikulutik 9. artikulura)

- ✓ Hasiera: lege eta dekretuak prestatzeko prozedura beti hasiko du hura sustatzen duen saileko sailburu titularrak, “hasiera-agindu” izeneko prozeduraren bidez. (10. eta 11. artikulua)
- ✓ Instrukzioa: araudi berria idazteko fasea da; testuak elebiduna izan beharko du eta online egon beharko du. Fase honetan, entzunaldirako eta informazio publikorako, negoziazio kolektiborako, beste administrazio publiko batzuekiko egiaztapenerako derrigorrezko izapideak jaso dira, bai eta funtsezko eta derrigorrezko txostenak ere, besteak beste, Lan Harremanen Kontseiluarena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena, Tokiko Gobernuen Batzordearena, Kontrol Ekonomikoaren Bulegoarena, legezketasun-txostenarena eta abar (12. artikulutik 21. artikulura)
- ✓ Amaiera eta onespena. Amaiera-fasean, halaber, derrigorrezko azken izapidea jaso da, alegia, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren derrigorrezko txostena. Hortik aurrera, Gobernu Kontseiluak arau bat onartzeko derrigorrezko txosten guztiak eta aplikatutako zuzenketa guztiak izan beharko ditu. (22. artikulutik 28. artikulura)

Premiazko kontuak direla eta, 4. artikulua adierazten duen bezala, Eusko Jaurlaritzak fase edo epe horietakoren bat bete ezin duenean, azaldu eta arrazoitu egin beharko du, bai premia, bai murrizten edo alde batera uzten dituen epeak.

BERDINTASUNA

Etorkizuneko legeak, gainera, jauzi kualitatiboa ekarriko du emakume eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorraren politketan; izan ere, Eusko Jaurlaritzak lege eta dekretuak prestatzeko prozeduran genero-ikuspegia aztertzea eta neurri zuzentzaileak aplikatzea lehenesten ditu.

Lege hau onesten denetik, 7. eta 8. artikuluek ezartzen duten bezala, prestaketa-fasera aurreratzen dira, arauak prestatzeko prozedura hasi aurretik, genero-eraginaren ebaluazioak eta txostenak. Horrela, Eusko Jaurlaritzak hasieratik aplikatu ahalko ditu bere lege eta dekretuetan neurri zuzentzaileak.

MODERNIZAZIOA

Era berean, lege-proiektu honek arauak prestatzeko prozedura modernizatzen du eta, horrela, “Gobernamendu Ona”ren balio berri eta beharrezkoei erantzuten die: plangintza, indarrean dagoen araudiaren ebaluazioa, gardentasuna, herritarren partaidetza, digitalizazioa eta abar.

Horrela, esate baterako, etorkizuneko legeak arau eta dekretuak erabat digitalki izapidetzeko beharra jaso du, prestaketa-prozeduraren fase guztietan gardentasun osoz jartzeko beharra, eta aurretik herritarrentzat, Eusko Jaurlaritzaren web-atari ofizialaren bidez (www.euskadi.eus), kontsulta egiteko epea irekitzeko beharra ezartzen du. 9. artikulua dakarrenaren arabera, 15 eguneko epe horrek testu juridikoak idatzi aurretikoa izan beharko du; izan ere, helburua da herritarrek sasoiz eman ahal izatea iritzia, baita gai bat arautzea edo ez arautzea egokia den esateko ere.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO AGILIZA, SIMPLIFICA Y MODERNIZA EL PROCEDIMIENTO PARA ELABORAR NORMATIVA AUTONÓMICA

- Aprobado el “*Proyecto de Ley del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General*” que desburocratiza el proceso e incluye los nuevos y exigentes requisitos de la “Buena Gobernanza”: planificación, evaluación, transparencia y participación ciudadana
- La nueva ley da un salto cualitativo en el trabajo del Gobierno Vasco por la igualdad porque adelanta y prioriza los informes que analizan y corrigen las nuevas normas desde la perspectiva de género

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el “*Proyecto de Ley del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General*”, un nuevo texto que define, delimita y regula cada una de las fases y requisitos que debe cumplir el Gobierno Vasco para elaborar sus leyes y decretos. Esta nueva ley deroga la anterior, que data de 2003, y su objetivo es triple:

- ✓ **Desburocratización:** simplifica y agiliza los trámites y procedimientos de elaboración de normas, manteniendo la calidad y plenas garantías jurídicas de leyes y decretos.
- ✓ **Igualdad:** adelanta y prioriza, en el proceso de elaboración de normas, todos los informes que analizan la perspectiva de género y aplican las medidas correctoras para garantizar la igualdad, también, en los textos normativos que elabora el Gobierno Vasco.
- ✓ **Modernización:** introduce en el procedimiento de elaboración de normas los nuevos y exigentes requisitos de la “Buena Gobernanza”, como por ejemplo, establecer como obligatorias la planificación, evaluación, transparencia y la participación ciudadana durante todo el procedimiento de elaboración de leyes y decretos.

Este Proyecto de Ley consta de una exposición de motivos, veintiocho artículos, agrupados en dos capítulos, una disposición adicional, una disposición transitoria, una disposición derogatoria y tres disposiciones finales. El Gobierno Vasco la enviará al Parlamento esta misma semana dónde comparecerá el Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, Josu Erkoreka, para dar los detalles a los grupos parlamentarios.

DESBUROCRATIZACIÓN

Uno de los objetivos principales del Proyecto de Ley es desburocratizar, simplificar y acortar el procedimiento de elaboración de leyes y decretos. Para ello, se fijan cuatro fases, con plazos tasados y el detalle de los procedimientos obligatorios en cada una de ellas:

- ✓ Preparación: es la fase previa en la que el Gobierno Vasco debe planificar, justificar la necesidad, proporcionalidad y eficacia de las nuevas normas que va a elaborar. (Artículos del 6 al 9)
- ✓ Iniciación: el procedimiento de elaboración de leyes y decretos lo iniciará, siempre, el consejero o consejera titular del departamento que la promueve con un procedimiento denominado “orden de inicio”. (Artículos 10 y 11)
- ✓ Instrucción: es la fase de redacción de la nueva normativa, una redacción que deberá ser plenamente bilingüe y online. Durante esta fase se incluyen los trámites obligatorios de audiencia e información pública, negociación colectiva, contraste con otras administraciones públicas, informes preceptivos esenciales como el de Consejo de Relaciones Laborales, Consejo Económico y Social Vasco, Comisión de Gobiernos Locales, la Oficina de Control Económica, informe de legalidad, etc. (Artículos del 12 al 21)
- ✓ Finalización y aprobación. La fase de finalización incluye el último trámite obligatorio que es el informe preceptivo de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi. A partir de ahí, el Consejo de Gobierno solo podrá aprobar una norma cuando ésta cuente con todos los informes obligatorios y sus correcciones aplicadas. (Artículos del 22 al 28)

Cuando por razones de urgencia, tal y como señala el artículo 4, el Gobierno Vasco no pueda cumplimentar alguna de estas fases o plazos, deberá explicarlo y justificarlo, tanto la urgencia, como los plazos que acorta u omite.

IGUALDAD

La futura ley supondrá, además, un salto cualitativa en las políticas de igualdad, real y efectiva, entre mujeres y hombres porque prioriza el análisis de la perspectiva de género y la aplicación de las medidas correctoras en el procedimiento de elaboración de leyes y decretos por parte del Gobierno Vasco.

A partir de la aprobación de esta ley, tal y como establecen los artículos 7 y 8, se adelantan a la fase de preparación, previa a iniciar el procedimiento de elaboración de normas, las evaluaciones e informes de impacto de género. Así, el Gobierno Vasco podrá aplicar, desde el principio, las medidas correctoras en sus leyes y decretos.

MODERNIZACIÓN

Igualmente, este Proyecto de Ley moderniza el procedimiento de elaboración de normas de manera que atiende a los nuevos y exigentes valores de la “Buena Gobernanza”: planificación, evaluación de la normativa vigente, transparencia, participación ciudadana, digitalización, etc.

Así, por ejemplo, la futura ley introduce la obligación de realizar una tramitación plenamente digital de las normas y decretos, exponerla con total transparencia durante todas las fases del procedimiento de elaboración e, incluso, establece la obligación de abrir un plazo de consulta previa a la ciudadanía a través del portal web oficial del Gobierno Vasco (www.euskadi.eus). Según el artículo 9, este plazo de 15 días deberá ser previo a la redacción de los textos jurídicos porque el objetivo es que la ciudadanía pueda opinar con antelación suficiente, incluso, sobre la conveniencia o no de regular sobre una materia.